

[Miren Etxaberen hitzaldia *El Homenaje de la Mujer al Euskera* ekitaldian  
(Donostia, Viktoria Eugenia, 1930-07-29)]

[Egile ezezaguna]: «IV Semana Vasca. El Homenaje de la Mujer al Euskera»

*El Día*, 1930-07-30: 12.

[Miren Etxaberen hitzaldia, *El Día*-ko kronikan jaso]

### Emakumea eta euskera

Poz aunditxoa ote zan nerea gaurko jaialdi onetarako neukana nengoen, baña... etzan gitxigotako.

Ez dakit zergatik, iruditzen zitzaidan gaur, areto onetan bildu bear zuten guziak ezagun bear zitzazkitela izan. Ala gertatu ere.

¿Nola-ba, etzerate ezagun izango anai-arrebak izanik?

Abizen ber-bera daramakigu, au da, Euskotarrak.

¿Ez da ala?

Zer gogo onez jardungo nintzaken ementxe etengabeko berriketa batean geure ele maite euzkera xamurrean mintzatuaz, baña, nik baño askoz obeto egingo dutenak ba-dira gaur emen. Orregatik, labur egongo naiz.

Ele maitea, esan det, dala gurea, ala ere badira orixe oinperatu nairik dabilzanak.

¿Zergatik baña?

¿Nor da, Jaungoikoagandik eskubidea artuta dagoena, Jaungoikoak berak egindako gauzak eskutatu edo lurperatzeko?

Batzuei osasuna ematen die, beste batzuei ez, baña batak eta bestiak daukana gordetzen alegindu bear du, agindua bete nai ba da.

Batzueri ematen die izkuntza bat, besteari beste bat, eta guri ain txukun eta garbi eman badigu geuria. ¿Zein gera gu galdu nai izateko?

Au egitea, nere iritxian, Jaungoikoaren aurka ibiltzea da.

Ona emen, emakumearen egiteko bear-bearrekoa, batez ere gazteak, zergatik ba gaude batzuek...

Ba-dira amak, dotore iritxian erderaz egin bear dutenak, dotore asko gañera. ¡A tuntunak!

Orrelakoen seme-alabak, ez dute beintzat asko goralduko gure euskera.

¿Zer kalteak egiten dituzten ama oiek!

Amak bear-du erein seme-alaben biotzetan lenbiziko azia. ¡Kontuz-ba! Ondo erne-dedin, bestela... galduak gera.

¿Euskeraz jakitea naiko ote-degu?

Ez, ez da aski euskera jakin eta mintzatzea, oeri dagozkion oiturak ere bear ditugu.

¿Zertarako degu euskera Jaungoikorik gabe?

Gure erriko oitura ori izan-da eta ori bear du izan.

¿Zergatik uzte dezute orrenbeste lan egiten dutela batzuek gure oitura eta izkuntzaren aurka?

¡Ongi bai-dakite oiturak galduezkero erria ere galdua litzakela!

¡Zer ederki gero! ¡Berak nagusi!

Euskal erriak ba-ditu baña sendo daudenak gai orretan, gañera lanerako gogoarekin.

Ona emen, gaurko jaialdirako batu geranak, asmo onarekin beintzat, eta erakutzi ere bai ikasi nai dutenari.

Jarrai zayozute gure bideari gañontzeko guziak bestela... laixter dituzute minberaturik belarriko zuloak nik entzun ditudan abesti oekin.

Euzkera azturikan  
erderaz ez dakin (dakin, dakin)  
ire erdera mordollu orrek  
xapoen erdera zirudin.

\*\*\*

Erdera mordolluan  
ari aizenian, (nian, nian)  
señorita de arripeko xapo  
deitzen diñate kalian.

\*\*\*

Maketotxo kaskarin  
mutur zikin ori (ori, ori)  
ire erdera mordolluakin  
xapo zuloan sartu ari.

¿Au entzun bearrean ote gera emen arkitzen geran denok? Ez det uste. Guk nai ezpadegu ez.

Labur izango naizela esan det, eta esana bete bear det txanda emanaz Barrena'tar Arantza'ri.

Ba-dakizute ba-dirala arantzak usai gozo dun lore ederrak ematen dituztenak. Barrena'tar Arantzak zabalduko digu lore bikain duan "Eusko Olerkien" usai gozoa.

Oiek dira guretzat lorerik atsegiñenak.

Agur ba, eta entzun berari ikasteko urrengoan nola egin.

Nik, nere kaxkarrean zerbait egin ba-nezake, agindu.